

## **ERTZAINZAREN GOMENDIOAK PERTSONEN ZIRKULATZEKO ASKATASUNA MUGATZEKO NEURRIAK EZARTZEKO**

1. Alarma-egoera indarrean dagoen bitartean, honako jarduerak egiteko bakarrik zirkulatu ahal izango da bide publikoetatik:

- a) Elikagaiak, produktu farmazeutikoak eta behar-beharrezkoak direnak erosteko.
- b) Osasun zentro, zerbitzu eta establezimenduetara joateko.
- c) Lantokira joateko, lan egitera edo jarduera profesionala edo enpresariala egitera.
- d) Ohiko bizilekura itzultzeko.
- e) Adinekoei, adingabeei, mendekoei, desgaitasuna duten pertsoneri edo bereziki ahulak diren pertsoneri laguntzeko eta zaintza emateko.
- f) Finantza- eta aseguru-erakundeetara joateko.
- g) Ezinbesteko kausagatik edo premia-egoeragatik.
- h) Antzeko beste hainbat jarduera egiteko; jarduerak bakarka egingo dira, desgaitasuna duten pertsoneri laguntzeko edo bestelako arrazoi justifikatu batengatik ez bada.

2. Era berean, ibilgailu partikularrek erabilera publikoko bideetatik zirkulatzea onartuko da aurreko atalean aipatutako jarduerak egiteko edo gasolina-zerbitzuguneetako hornikuntza egiteko.

3. Edonola ere, joan-etorri guztietan errespetatu beharko dira osasun-agintariek emandako gomendioak eta ezarritako betebeharrak.

4. Osasun publikoaren larrialdi eta alarma egoera hau betetzeko, Ertzaintzak errepideetako edo horietako zati batzuetako zirkulazioa eten ahal izango du osasun publikoarekin, segurtasunarekin, trafikoaren arintasunarekin edo adierazitako arrazoiengatik ibilgailu jakinen zirkulazioa mugatzearekin zerikusia duten arrazoiak direla-eta.

### **GARRANTZIZKOA:**

**Adierazitako kasu guztietan, Ertzaintzak desplazamenduaren arrazoiak argitasunez eta egiaztatzeko moduan justifikatzeko azalpena eskatu ahal izango die gidariei.**

**Autoan zirkulatu ahal izateko, bakarrik joatea gomendatzen da. Autoan bigarren pertsona bat badao, atzeko eskuineko aldean eseriko da, segurtasun-distantzia errespetatuz.**